



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

**GOBERNU JUNTAK 2016.09.27an EGINDAKO  
BILKURAKO AKTA**

**LEHENDAKARIA**

UNAI ELKORO OIANGUREN

ARETXABALETA

**BOKALAK**

BEÑARDO KORTABARRIA OLABARRIA  
JOSÉ MIGUEL URIBARREN AZPIAZU  
MARIA UBARRETXENA CID  
JUAN KARLOS GARITANO EZKURRA  
ELENA LETE GARCIA  
LANDER ARREGI INCHAUSTI  
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA  
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA  
MIKEL BIAIN BERRAONDO

ANTZUOLA  
ARETXABALETA  
ARRASATE  
ARRASATE  
BERGARA  
BERGARA  
ELGETA  
ESKORIATZA  
OÑATI

**ETORRI GABEAK**

IBON ARRUPE ALDECOCEA  
OSCAR GARCÍA HORRILLO  
SABINO AZCARATE LETURIA  
ENEKA ZANKADA REMENTERIA  
IRATI ETXEBERRIA GABIRIA  
NEREA ZUBÍA BLAZQUEZ

ARRASATE  
ARRASATE  
BERGARA  
LEINTZ-GATZAGA  
OÑATI  
OÑATI

**BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA**

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

**JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK**

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea

Mankomunitatearen egoitzako bilera gelan, 2016ko irailaren 27an, 12:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Unai Elkorro Oianguren jauna, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren bilkura berezia hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

## **1.- Aurreko bilkuretako aktak onartzea**

Gobernu Juntak aho batez ONARTU DITU 2016ko uztailaren 12an eta 21ean egindako bilkuretako akten zirriborroak.

## **2.- ZERBITZU OROKORRAK**

### **2.1.- Mankomunitateko gela bat erabiltzeko Gurutze Gorriarekin hitzarmena**

Gipuzkoako Gurutze Gorriari Babes Internazionalaren eskatzaileei harrera esku-emailearen kudeaketa egokitu zaio. Jarduera hau Enplegu Ministerioak duen Nazioarteko Babes Internazionalako Programa Orokorraren lan eremu barruan garatuko da. Programa honen azken helburua Babes Internazionalaren eskatzaileen gizarteratzea da, harrera eta babes eremua eskainiz.

Hori dela eta, Errefuxiatu eta Babes Internazionala eskatu duten pertsona eta familiei Enplegu eta Gizarte Politika Departamentuaren eta Gurutze Gorriaren artean dagoen lankidetzaren barruan, etxebizitza duin bat izateko laguntza errazteko asmoz, Arrasaten lau etxebizitza utzi dira zonaldean programa aurrera eramateko.

Arrasaten programa hau garatu ahal izateko, Gurutze Gorriak Mankomunitateari lokal bat eskatu dio, bulegoak jartzeko eta programarekin lotutako ekintzak garatzeko. Lan taldea bi gizarte hezitzailek eta aholkulari juridiko batek osatuko dute.

Gobernu Juntak, eskualdean garatuko den programa honetan laguntzeko asmoarekin, eta 3. solairuan, sukalde ondoan, badagoenez gela bat une honetan erabiltzen ez dena, aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Debagoieneko Gurutze Gorriarekin hitzarmen bat sinatzea, ondorengo klausulen arabera:

*“1. Debagoieneko Mankomunitateak urtebetez dohainik erabiltzen utziko dio Debagoieneko Gurutze Gorriari Zaldibar eraikinaren 3. solairuko sukalde ondoko gela, Debagoiengan Errefuxiatu eta Babes Internazionala eskatu duten pertsona eta familiei zuzendutako Programa garatzeko, 2016ko irailaren 28tik 2017ko irailaren 27ra arte.*

*2.- Debagoieneko Mankomunitateak ordainduko ditu gelaren argindarra eta garbiketa gastuak.*

*3.- Debagoieneko Mankomunitateak gelara sartzeko beharrezko diren giltzak utziko dizkio Gurutze Gorriari, eta honen ardura izango da atea ireki eta behar den bezala ixtea.*

4.- Gurutze Gorriak baimendutako erabileraren arabera erabiliko du lagatako lokala, eta beharturik dago egoera ezin hobean mantentzera. Egindako kalteen erantzule ere bera izango da, eta lagapena bukatzean hartu zuenean bezalaxe itzuli beharko du.

5.- Lankidetzaren Hitzarmen honetan dauden betebeharrak ez betetzeak Hitzarmena deuseztatzea ekarriko luke.”

### 3.- HONDAKINEN KUDEAKETA

#### 3.1.- “Epeleko zabortegian isurketa-gelaxkaren I faseko konfinamendua eta II fasearen egokitzapena eta I fase gainerako EEH-plataformaren proiektua” gauzatzeko kontratazio espedientea; eskaintzen sailkapena

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2016ko uztailaren 12an egindako bilkuran, “Epeleko zabortegian isurketa-gelaxkaren I faseko konfinamendua eta II fasearen egokitzapena eta I fase gainerako EEH-plataformaren proiektua” eta proiektu hau gauzatzeko kontratazio espedientea, gastua eta Administrazio Klausula Partikularren Agiria onartu zituen, esleitze prozedura irekitzea erabakiz.

Horretarako emandako epean bost proposamen aurkeztu ziren, bostak onartuz:

1. UTE CONSTRUCCIONES ARTZAMENDI, S.A./EXCAVACIONES Y TRANSPORTES LEKEN, S.L.
2. OBRAS PÚBLICAS ONAINDÍA, S.A.
3. HARINSA NAVASFALT, S.A.
4. CONSTRUCCIONES MOYUA, S.L.
5. CESPAS GESTIÓN DE RESIDUOS, S.A.

B gutun-azalean jasotako dokumentazioa balioetsi ondoren, C gutun-azaleko proposamen ekonomikoak ireki ditu Kontratazio Mahaiak eta eskaintzak segida beharrezkoan sailkatu ditu, Administrazio-Klausula Berezien Agirian jasotako irizpideen arabera.

Hau honela izanik, Kontratazio Mahaiaren proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Eskaintzen ondorengo sailkapena onartzea:

	<u>Enpresa lizitatuak</u>	<u>B gutun-azala</u> <u>Balio-judizio baten mende dauden irizpideak</u> <b>50 puntu</b>	<u>C gutun-azala</u> <u>Proposamen Ekonomikoa</u> <b>50 puntu</b>	<u>GUZTIRA</u> <b>100 puntu</b>
1	HARINSA NAVASFALT, S.A.	46	48,23	<b>94,23</b>
2	CESPA GESTIÓN DE RESIDUOS, S.A.	42	50,00	<b>92,00</b>



3	CONSTRUCCIONES MOYUA, S.L.	49	42,285	91,285
4	OBRAS PÚBLICAS ONAINDÍA, S.A.	36	42,55	78,55
5	UTE CONSTRUCCIONES ARTZAMENDI, S.A./EXCAVACIONES Y TRANSPORTES LEKEN, S.L.	30	43,86	73,86

2. Saillkapen honen arabera, HARINSA NAVASFALT, S.A. enpresak aurkeztutako proposamena denez ekonomikoki onuragarriena, aipatu enpresari hamar laneguneko epea ematea, Mankomunitatearen errekerimendua jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, A gutun-azaleko agiriak, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela frogatzen duen dokumentazioa eta behin betiko bermea aurkezteko.
3. Kontratu honen esleipena dokumentazioa jaso ondorengo bost lanegunen barruan egingo da.

#### **4.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA**

##### **Enplegua eta Prestakuntza**

##### **4.1.- 2016ko Enplegu Plana; Udalekin lankidetzak hitzarmenak**

Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak 2016ko ekainaren 16an enplegua sustatzeko toki ekintzetarako laguntza deialdia egin zuen. Debagoieneko Mankomunitateak aipatutako deialdira 318.893,57 euroko diru-laguntza eskaera egin zuen. 2016ko abuztuaren 29an Mankomunitateak, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko Zuzendari Nagusiaren aldeko ebazpena jaso zuen eskatutako diru-laguntza onartuz.

Aipatutako enplegua sustatzeko tokiko ekintzak eskualdeko udalek egingo dituzten 33 lan-kontratuetan gauzatuko dira. Horretarako udal bakoitzak Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako instrukzioak beteko ditu.

Programaren barnean guztira Debagoiengan 33 kontratu egingo dira (Arrasateko Udalak 9, Bergarako Udalak 6, Oñatiko Udalak 8, Aretxabaletako Udalak 3, Eskoriatzako Udalak 3, Antzuolako Udalak 2, Elgetako Udalak 1 eta Leintz-Gatzagako Udalak 1).

Debagoieneko udalek egingo dituzten kontratu laboralak ondorengo baldintzak beteko dituzte:

- Onura publiko edo interes sozialeko jarduerak izango dira.
- Ez dute toki-erakundeen egiturazko lanez arduratzen diren langileen ordezkotz lanik egingo.
- Kontratuek hiru hilabeteko gutxienezko iraupena izango dute.

- Kontratuak lanaldi osokoak edo partzialekoak (%50 gutxienez) izango dira.
- Lanbiden lan-eskatzaille moduan izena emanda dauden pertsona langabeak kontratatu ahal izango dira soilik.
- Kontratazioen %30a gutxienez diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DBE) jasotzaileei egin beharko zaie.
- Kontratazioen %40a gutxienez emakumezkoei egingo zaie.
- Kontratazioen %15a gutxienez 55 urte baino nagusiagoei egingo zaie.
- Gainerako kontratuak kolektibo hauetakoren bateko pertsonen egindakoak izan beharko dira:
  - 35 urte edo gutxiago dituzten pertsonak
  - 45 urte baino gehiago izan eta lan-eskatzaille moduan gutxienez 6 hilabete daramatzatenak.
  - Denbora luzean lanik gabe dauden pertsonak.
  - Gizarte-bazterketaren arriskuan daudenak.
  - Ezintasunak dituzten pertsonak.
  - Familia-ardurak dituzten emakumeak.
  - Genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeak.

Kontratatuko diren langabetuen hautaketa eta ordainketak udalek egingo dituzte. Mankomunitateak jasoko duen 318.893,57 euroko diru-laguntza udalei bideratuko die %50 kontratuak egiterakoan eta gainontzeko %50a egindako kontratazioen gastua egiaztatzen dutenean.

Hau honela izanik, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Mankomunitateko 8 Udalekin lankidetzak hitzarmenak sinatzea, ondorengo klausulen arabera:

**“LEHENENA.-** .....ko Udalak ..... langabetu kontratatuko ditu. Langabetu hauek kontratatzeke, udalak egin beharreko lan eskaintzak Arrasateko Lanbideko bulegoan aurkeztuko ditu. Udalak, Lanbidek eskaintzan parte hartzeke nahia azaldu duten langabetuen artean, hautaketa prozesua burutuko du. Programaren bukaeran eta Mankomunitateak deskargua burutzeke, dagokion lan eskaintzaren eta zerbitzuetako eskaintzen erregistro zenbakiez gain udalak langileen, kontratuak, nominak eta TC1 eta TC2ko kopiak edo kosteak jasoko duen idazkaritzak egindako ziurtagiria emango dio Mankomunitateari.

**BIGARRENA.-** .....ko udalak egingo dituen ..... kontratuak honako baldintzak beteko dituzte:

- .....

**HIRUGARRENA.-** Mankomunitateak Lanbidetik jasotako diru-laguntzatik .....euro ordainduko dio .....ko Udalari, %50a kontratuak egiterakoan eta gainontzeko %50a egindako kontratazioen gastua egiaztatzen duenean, beti ere, Mankomunitateak diru-laguntzak jaso eta gero.”

- Mankomunitateak Udal bakoitzari ordainduko dion zenbatekoa honako hau izango da:
  - Antzuola: 17.411,59 €.
  - Aretxabaleta: 29.529,54 €.
  - Arrasate: 110.050,17 €.
  - Bergara: 68.338,89 €.
  - Elgeta: 12.978,97 €.
  - Eskoriatza: 25.957,94 €.
  - Leintz-Gatzaga: 10.300,26 €.
  - Oñati: 44.326,21 €.
  
- Udal bakoitzak egin beharreko kontratuek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:
  - Antzuola: 2 kontratu
    - 1 DBE edo RGI jasotzen duen pertsona
    - 1 Emakumezkoa
  - Aretxabaleta: 3 kontratu
    - 1 DBE edo RGI jasotzen duen pertsona
    - 1 55 urte baino nagusiagoa
    - 1 Emakumezkoa
  - Arrasate: 9 kontratu
    - 3 DBE edo RGI jasotzen duen pertsona
    - 2 55 urte baino nagusiagoak
    - 3 Emakumezkoak
  - Bergara: 6 kontratu
    - 2 DBE edo RGI jasotzen duen pertsona
    - 1 55 urte baino nagusiagoa
    - 2 Emakumezkoa
  - Elgeta: kontratu 1
    - 1 Emakumezkoa
  - Eskoriatza: 3 kontratu
    - 1 DBE edo RGI jasotzen duen pertsona
    - 1 55 urte baino nagusiagoa
    - 1 Emakumezkoa
  - Leintz-Gatzaga: kontratu 1
    - 1 Emakumezkoa
  - Oñati: 8 kontratu
    - 2 DBE edo RGI jasotzen duen pertsona
    - 3 Emakumezkoak

#### **4.2.- Ikasleen praktikak garatzeko hainbat hitzarmen**

Garapen Ekonomikorako Agentzia Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatearekin ikasleen praktikak Mankomunitatean egiteko lankidetzak hitzarmen berri bat sinatzea, ondorengo klausulen arabera:

### **“Lehena.-Helburua**

Heziketa lankidetzaz hitzarmen honek hurrengo zehaztapen orokorrak erregulatuko ditu: Unibertsitateko ikaslegoaren kanpoko praktika ez kurrikularren garapena Debagoieneko Mankomunitateko egoitzan.

### **Bigarrena.- Praktiken programaren kudeaketa**

Praktika akademikoen programa Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziako Zerbitzuak kudeatuko du.

### **Hirugarrena.-Praktiketako ikasleriaren eta enpresaren arteko harremana**

1.- Praktika akademikoek, hezitzaileak diren heinean, ez dituzte inoiz ekarriko lan harremanak dituzten berezko betebeharrak. Praktikaren edukiak ere, ez du ekarriko lanpostu baten berezko prestakuntzaren ordezkapena.

2.- Era bereraren, ikaslea bere ikasketen amaieran, plantilan sartuko balitz, praktiken denbora ez da konputatuko antzinatean bezala.

### **Laugarrena.- Debagoieneko Mankomunitateko eginbeharrak**

1.- Praktiketara dagoen ikasle bakoitzeko pertsona bideratzaile bat izendatu. Honek, ikasleak enpresan burutu beharreko jarduera hezitzaileak antolatuko ditu, Unibertsitatearekin adostutako programa hezitzailearen arabera.

2.-Ikasturte akademiko bakoitzaren hasieran, praktikak egin ditzaketan ikasleen kopurua zein den zehaztea.

3.-Dagokion erantzukizun zibileko aseguruaren izenpetuta izan..

4.-Izenpetu Unibertsitatearekin eta aukeratuta izan den ikaslearekin beharrezkoak diren dokumentuak dagokion proiektu hezitzailearen garapenerako.

5.- Praktiketako ikasleriari ordaindu burtsa edo laguntza dagokion ikasketarako.

6.- Ikaslegoaren eskura jarri praktikak egiteko behar dituen baliabide materialak.

7.- Laneko praktiketako ikasleriarekin segurtasun eta higienari buruzko legeria betetzen dela zaindu.

8.- Ikasleari alta ematea Gizarte Segurantzari, unibertsitateko praktika akademikoak egiten ari diren ikasleei dagokien modalitatean, praktika-kontratu sinatzen den unean hori egin behar dela dioen legerian bat dagoenean indarrean.

9- Fakultateak eskatzen duenean, tarteko eta azken txostenak egin Unibertsitateko tutoreari emateko.

### **Bosgarrena.-Unibertsitatearen betebeharrak**

1.- Debagoieneko Mankomunitatearekin batera, aukeratu enpresan kanpoko praktikak egin behar duen ikasleria, burutu beharreko lanaren profila duela ziurtatuz.

2.-Tutore bat izendatu praktika akademikoak egiten dituen ikasleriaren jarraipena egiteko eta laguntzeko.

3.- Izenpetu enpresarekin eta aukeratua izandako ikaslearekin, beharrezkoak diren dokumentuak proiektu hezitzailearen garapenerako.

4. Dagokion ikaslearen eskola-asegurua izenpetuta izan eta, ikaslea bere egonaldian estaltzen duten aseguru osagarriak eta antzerako polizak ere bai.

### **Seigarrena.- Debagoieneko Mankomunitateko bideratzailearen eskubideak eta eginbeharrak**

Mankomunitateak izendatutako pertsona bideratzaileak hurrengo eskubideak izango ditu: praktikak erregulatzen dituen araudia ezagutzeko eskubidea. Era berean, proiektu hezitzailearen eta honen garapenerako dauden baldintzak ezagutzeko eskubidea ere izango du.

Bestalde, hurrengo eginkizunak izango ditu:

1.- Ikasleak ongi hartu eta proiektu hezitzailean ezarritakoaren arabera jarduera antolatu.

2.-Eskubidea du Unibertsitatearen egiaztagiri bat jasotzeko, praktiketako ikasle baten instruktore lanetan aritu dela esanez.

3.- Jarduerak gainbegiratu, bideratu eta praktikaren garapena kontrolatu.

4.- Ikaslegoari jakinarazi zein den enpresaren funtzionamendua, antolaketa eta araudia, batez ere, segurtasun eta lan arriskuei dagokiena.

5.- Unibertsitateko tutore akademikoarekin koordinatu heziketa lankidetzaz hitzarmenean ezarritako jardueren garapena. Hemen sartuko dira ere, praktikaren garapen normalerako beharrezkoak izan daitezkeen aldaketak eta egon daitezkeen aparteko gorabeheren konponketa eta komunikazioa.

6.- Fakultateak eskatzen dituen kasuen jarraipen txostenak prestatu.

7.-. Ikasleak praktikak egiteko behar dituen heziketa osagarria eman.

8.- Bideratzaile izateagatik ezagutzen duen ikasleriaren edozein informazioaren konfidentzialtasuna gorde.

9.- Ikasleriari laguntza eman enpresan dagoen bitartean bere lan jarduerak burutzeko beharra izango balu.

### **Zazpigarrena.- Unibertsitateko tutorearen eskubideak eta eginbeharrak**

Unibertsitateak izendatutako tutoreak hurrengo eskubideak izango ditu: praktikak erregulatzen dituen araudia ezagutzeko eskubidea. Era berean, proiektu hezitzailearen eta honen garapenerako dauden baldintzak ezagutzeko eskubidea ere izango du.

Bestalde, hurrengo eginkizunak izango ditu:

1.- Praktiken jarraipen eraginkorra egin, enpresako pertsona bideratzailearekin koordinatuz.

2.- Proiektu hezitzailean egoten diren aldaketak baimendu.

3.- Tutorea izateagatik dakien Mankomunitateko barneko informazioari buruzko konfidentzialtasuna gorde.

### **Zortzigarrena.- Praktiketako ikasleriaren eskubideak eta betebeharrak**

Ikasleek hurrengo eskubideak izango dituzte:

1.- Pertsona bideratzailearen tutoretzari praktikek irauten duten bitartean.





2.- Bere instruktoreak egindako azken txostenari; txosten honetan egindako jarduera, bere iraupena eta errendimendua (horrela badagokio) , agertuko dira.

3.- Ikasketarako diru-laguntza edo burtsa jasotzeko, praktika hauen oinarri arautzaileetan aurreikusitako zehaztapen arabera.

4.- Elbarritasuna duen ikasleriaren kasuan, praktikak bere elbarritasunera egokitzeari. Jarduerak nahiz egoera pertsonala begiratuko dira.

5.- Indarrean dauden arauetan aurreikusitako beste eskubide batzuk.

Era berean, hurrengo eginkizunak bete beharko dituzte:

1.- Ezagutu eta bete heziketa lankidetzaz hitzarmen honen zehaztapenak, hitzarmen espezifikoenak eta praktiken proiektu hezitzailearenak, bere instruktorearen azalpenak jarraituz.

2.- Lanean hasi adostutako datan eta proiektu hezitzailean aurreikusitako ordutegia bete.

3.- Proiektu hezitzailea garatu, bertan ezarritako lerroak jarraituz, eta Mankomunitatean adostutako eginkizunak arduraz bete.

4.- Mankomunitatearen barne informazioa eta bere jarduerak ez zabaldu, konfidentzialtasuna gordez; bai bertan egonda edo egonaldia bukatutakoan.

5.- Mankomunitatearen politika errespetatu.

6.- Indarrean dauden arauetan aurreikusitako beste edozein betebeharrak.

7.- Debagoieneko Mankomunitateko jarduna euskaraz egiten denez, praktiketan parte hartuko duen ikasleriak euskaraz aritzeko eta lana egiteko ahalmena izango du, beraz ahalmen hori bermatzeko EGA edo baliokidea den euskarazko titulazioa eduki beharko du.

Eginkizun hauek bete ezean, praktika aurretiaz deuseztatu ahal izango da.

Hau gertatuz gero, **Enpresagintza E.Koop**-ak edo **Debagoieneko Mankomunitateak** jakinarazi beharko dio hitzarmen honen hamabigarren klausulan ezarritako Jarraipen Batzordeari. Honek, gehienez jota hamar egunetan ebatzi beharko du aurretiaz deuseztatutako praktikaren gainean.

Ikaslea praktikatik aldentu ahal izango da azterketak egiteko; horretarako hiru egun aurretik gutxienez jakinarazi beharko dio bere instruktoreari. Gainontzeko ausentziak, bai akademikoak, bai bestelakoak lehenbailehen jakinarazi beharko zaizkie bere instruktoreari eta bere tutoreari eta hauek baimenduak izan beharko dira.

### **Bederatzigarrena.- Burtsa edo laguntza**

Debagoieneko Mankomunitateak hileroko 320€ ordainduko dio ikasleriari praktikak egiteagatik. Laguntza hau ikasketarako izango da eta era berean praktika akademikoak egiteak ikasleriari sortzen dizkion gastuak konpentsatzeko ere balioko du.

### **Hamargarrena.-Jarraipen batzordea**

1.- Praktikak garatzerakoan edo hitzarmena betetzerakoan egon daitezkeen aparteko gorabeherak konpontzeko, Jarraipen Batzordea ezarriko da. Hau Unibertsitateko bi ordezkariekin eta Debagoieneko Mankomunitateko beste bi kiderekin egongo da osatuta.

2.-Batzorde hau sortzen denetik, honen lehendakaritza txandakatua izango da eta berau parte-hartzaile sinatzaileek osatuko dute. Lehenengo txanda Unibertsitateari esleitua izango da.

### **Hamaikagarrena. Hitzarmenaren iraunaldia**

1.- Hitzarmen honek, sinatzen denetik, **lau urteko iraupena** izango du. Dena den, edozein parte-hartzaile sinatzaileak ikasturtea hasi aurretik hitzarmena salatu dezake, bertan hitzartutakoa deuseztatua gera dadin.

2.- Hala ere, **urteroko berrikustealdiak** ezartzen dira, ikasturte akademikoaren bukaeran. Hemen, hiru parte-hartzaileetatik edozeinek, enpresak, unibertsitateak edo ikasleak deusezta dezake hitzarmen hau, arrazoi objektiboak egonez gero.

3.- Hitzarmenaren salaketa idatziz izan beharko da; ez du eragina izango **ordura arte** egindako praktiketan eta ez du kaltetuko zortzigarren klausulan ezarrita dagoena praktiken deuseztapen aurreratuarentzat.

Eta adostasun proba bezala, hitzarmen hau bikoiztuta sinatzen da, goiburuan adierazitako lekuan eta datan.

### **Hamabigarrena- DATUEN BABES LEGEA (DBL)**

Partaideek espresuki hurrengo adosten dute:

- Abenduaren 13ko 15/1999 Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako Lege Organikoa (DBLO) eta bere garapen araudia betetzeko konpromisoa hartzen dutela. . Azken hau, zehazki, Abenduaren 21eko 1720/ 2007ko Errege Dekretuan onartu zen.
- Kontratu honen arabera, Partaideetako batek besteari izaera pertsonaleko datuak ezagutaraziko balizkio, datuen entitate emaileak, argi eta garbi adierazi eta bermatu beharko liokeela hartzaileari, datu hauei buruzko DBLO-n eta honen garapen araudian agertzen diren betebeharrak eta aurreikuspen guztiak betetzen dituela.
- Era berean, Unibertsitateak espresuki adierazi eta bermatzen dio enpresari , izaera pertsonaleko datuen titular bakoitzaren dagokion dudarik gabeko baimena lortu duela. Baimen hau, titularren datuak enpresa berari emateko dira, bekaren garapen egokia ziurtatzeko eta beharrezkoa balitz dagokion ebaluaziorako.
- Orobat, eta Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetze aldera, alde biek dakite lankidetzahitzarmen honen ondorioz trukatzeko dituzten datuak fitxategi batera sartuko direla, eta biak izango direla fitxategi horren titularrak. Ildo horretan, eta hitzarmen hau sinatuz, alde biek ematen dute baimena datu horiek tratatzeko, tratamendu horren xedea hitzarmeneko harremana modu egokian kudeatzea dela ulertuta. Alde biek dakite hitzarmena sinatzearen ondorioz biltzen dituzten datu pertsonalak eskuratu, zuzendu, aurkatu eta ezabatzeko eskubidea dutela.
- Partaide biei jakinarazten zaie, sinadura honen ondorioz, jasotako datu pertsonalei buruzko hurrengo eskubideak dituztela: sartu ahal izateko, zuzentzeko, kontraktasuna adierazteko eta bertan behera uzteko. Eskubide hauek erabil ditzakete kontratu honen goiburuan jasotako helbideetan.”

2. Turismo arloan ikasleen praktikak egiteko, Bergarako Ikasi Akademiaren (Lanbidek baimendutako zentroa), eta Oñatiko Zuazola-Larraña BHI Ikastetxearen eskaerak ere onartzea, horretarako dagokion hitzarmenak sinatuz.

#### **4.3.- PUNTAIK PUNTA Jaialdia; Turismo Batzordearen proposamena**

Turismo Batzordearen proposamenaren berri eman da. Honako hau da: "PUNTAIK PUNTA jaialdia 2017an Bergaran antolatzea eta Bergarako Udalak sortu beharko den Lan Talderako ordezkari teknikoa izendatzea".

Bergarako ordezkariak esan dute Udalean aztertuko dutela proposamen hau eta erantzun bat emango dutela lehenbailehen.

#### **5.- LEHENDAKARITZA**

##### **5.1.- Lehendakaritzaren ebazpenak.**

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:

**16/73.-** 16/19 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira LAUROGEITA HAMAHIRU MILA ETA ZORTZIEHUN EURO ETA HOGEITA HIRU ZENTIMO (93.800,23 €).

**16/74.-** 16/20 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HOGEITA BAT MILA LAUREHUN ETA LAUROGEITA HAMABI EURO ETA LAUROGEITA BEDERATZI ZENTIMO (21.492,89 €).

**16/75.-** 16/21 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HOGEI MILA ZORTZIEHUNETA BERROGEITA HAMAHIRU EURO ETA HEMERETZI ZENTIMO (20.853,19 €).

**16/76.-** 16/22 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HIRUROGEITA HEMERETZI MILA LAUREHUN ETA HOGEITA BEDERATZI EURO ETA LAUROGEITA HAMAR ZENTIMO (79.429,90 €).

**16/77.-** 1.- J.E.I. kontratatzea uztailearen 9tik aurrera G.M. zamaketariaren ordezkapena egiteko, gaixotasunagatik. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

2.- J.D.L.T.N. kontratatzea

- Uztailearen 9an, 16an eta 23an Arrasateko ibilbide komertziala egiteko, zamaketari bezala.
- Uztailearen 21ean eta 22an Oñatiko ibilbide komertziala, zamaketari bezala.
- Uztailearen 30ean eta abuztuaren 20an eta 27an Arrasateko ibilbide komertziala, txofer-zamaketari bezala.
- Uztailearen 26an, X.A. txofer-zamaketariaren ordezkapena.
- Abuztuaren 6tik 13ra, M.Z. txofer-zamaketariaren ordezkapena.
- Abuztuaren 16an, J.E. txoferrarena.

Lanpostu bakoitzari dagokion ordainsaria emango zaio.

3.- X.A.B. kontratatzea uztailaren 11tik aurrera, J.C.Z. zamaketari lanpostuaren titularra – Ezintasun Iraunkor Osoko egoeran deklaratu izan dena- bere lanpostura bueltatu arte, bere ezintasunaren berrikuspen baten ondorioz. Bueltatuko ez balitz, lanpostu hau bete arte, dagokion hautaketa prozesua bukatu ondoren, edota, lanpostu hau kentzea erabaki arte. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

4.- J.R.A. kontratatzea uztailaren 11tik 29ra S.C. zamaketariaren ordezkapena egiteko, oporratik, eta uztailaren 30ean Arrasateko ibilbide komertziala egiteko, zamaketari bezala. Zamaketari lanpostuari dagokion ordainsaria emango zaio.

5.- M.Z.B. kontratatzea uztailaren 11tik 31ra J.E. txoferraren ordezkapena egiteko, eta abuztuaren 1etik 31ra J.L. txofer-zamaketariarena. Lanpostu hauei dagokien ordainsaria emango zaio.

6.- M.E.C. kontratatzea uztailaren 14an, goizez, Garbiguneko zaintzailea den D. G. ordezkapena egiteko, eta abuztuaren 5etik irailaren 5era, goizez, Epeleko zabortegiko lan pilaketari aurre egiteko. Lanpostu hauei dagokien ordainsaria emango zaio.

7.- M.A.E. kontratatzea uztailaren 15ean lanpostuaren zereginak ikasteko, eta uztailaren 26tik abuztuaren 31ra A.L. Garbiguneko zaintzailearen ordezkapena egiteko, oporratik. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

8.- E.V.M. kontratatzea uztailaren 16an Arrasateko ibilbide komertziala egiteko, txofer-zamaketari bezala. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

9.- V.D.C.F. kontratatzea uztailaren 18tik 30era Garbiguneko zaintzailea den J.L.M. ordezkapena egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

10.- M.S.R. kontratatzea abuztuaren 1etik 31ra, goizez, Garbiguneko zaintzaile bezala, oporrek eragindako lan pilaketari aurre egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

11.- A.A.G. kontratatzea abuztuaren 4tik 31ra J.J. zamaketariaren ordezkapena egiteko oporratik. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

**16/78.-** M.I.F. bitarteko funtzionario izendatzea uztailaren 13tik 31ra informatzaileen lan pilaketari aurre egiteko.

Hileko ordainsari gordina 2.070,50 €koa izango da, honela banatuta:

- Soldata: 713,13 €. (C1)
- Lanpostu-mailako osagarria: 374,82 €. (17)
- Berriazko osagarria: 982,55 €.

**16/79.-** Z.G.S. eta O.G.B. gaur egungo izendapenak bertan behera utzi eta ondorengo bitarteko izendapen berriak egitea:

- 2016ko abuztuaren 1etik 2017ko martxoaren 6ra arte, lanaldi erdiz, Enplegu Zentroan kudeaketa eta lan orientazio lanak egiteko, 2017ko martxoaren 6an Enplegu Zentroa itxi arte, Lanbideko Zuzendari nagusiaren 2015eko abenduaren 30eko ebazpenaren arabera.



- 2016ko abuztuaren 1etik 2017ko uztailaren 5era arte, beste lanaldi erdiz, Lanbidek, 2015eko diru-laguntza deialdiaren babesean finantzatutako Enplegurako Orientazioko Ekintza Programa garatzeko. (2016ko uztailaren 1eko Lanbideko Zuzendari Nagusiaren Ebazpena)

Hileko ordainsari gordina guztira 2.323 €koa izango da, honela banatuta:

- Soldata: 931,11 €. (A2)
- Lanpostu-mailako osagarria: 398,29 €. (18)
- Berariazko osagarria: 993,60 €.

**16/80.-** 1.- Alboko kargako ibilgailuen bidez etxeko hondakinen mota ezberdinak biltzeko hainbat edukieratako edukiontziz hornitzeko kontratua PLASTIC OMNIUM SISTEMAS URBANOS, S.A. enpresari esleitzea ondorengo prezioan:

- Edukiontzi-unitateak, gutxi gorabehera 2.000 litrokoak, gai organikoak biltzeko: 677 € bakoitza, gehi 142,17 € (% 21 BEZ).
- Edukiontzi-unitateak, gutxi gorabehera 2.000 litrokoak, errefusa biltzeko: 677 € bakoitza, gehi 142,17 € (% 21 BEZ).
- Edukiontzi-unitateak, gutxi gorabehera 3.000 litrokoak, ontziki arinak biltzeko: 777 € bakoitza, gehi 163,17 € (% 21 BEZ).
- Edukiontzi-unitateak, gutxi gorabehera 3.000 litrokoak, papera/kartoia biltzeko: 777 € bakoitza, gehi 163,17 € (% 21 BEZ).

2.- Aipatu enpresarekin dagokion kontratua sinatzea erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 15 laneguneko epean.

**16/81.-** 1.- Etxeko hondakinak jasotzeko eta garraiatzeko alboko kargako ibilgailu batez hornitzeko kontratua SERVICIOS INTEGRALES VEHÍCULOS URBANOS, S.L. enpresari esleitzea 178.500 €-ko prezioan, gehi BEZ.

2.- Aipatu enpresarekin dagokion kontratua sinatzea erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 8 laneguneko epean.

**16/82.-** 16/23 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira MILIOI BAT EHUN ETA HIRU MILA EHUN ETA HIRUROGEITA HAMAZORTZI EURO ETA BI ZENTIMO (1.103.178,02 €).

**16/83.-** 16/24 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BERROGEITA HAMAHIRU MILA SEIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAIIKA EURO ETA LAUROGEITA ZAZPI ZENTIMO (53.671,87 €).

**16/84.-** Informatzaileen lan poltsa erabiliz, 6 hilabeterako, 2016ko abuztuaren 1etik 2017ko urtarrilaren 31 arte, ondorengo bitarteko izendapenak egitea:

- O.I.A. eta A.E.E., udazkenean Aretxabaletan ezarriko den 5. edukiontzi bidezko hondakin bilketa martxan jartzeko, ibilbideak marraztu, dimentsionamenduan lagundu eta herritarrei txartelak banatzeko, ondoren ezarpenaren jarraipena egin eta optimizazioan laguntzeko.



- M.I.F. eta A.E.L., hondakin bilketa eta udaletako kale garbiketako langileen arteko koordinazioa, hondakinen bilketako ikuskaritza lanak eta hondakinen bilketako informazio bulegoetan arreta zerbitzua eskaintzeko.

Hileko 2.070,50 €ko ordainsari gordina emango zaio, honela banatuta:

- Soldata: 713,13 €. (C1)
- Lanpostu mailako osagarria: 374,82 €. (17)
- Berariazko osagarria: 982,55 €.

**16/85.-** 1.- J.O.G., Epeleko zabortegiko lan pilaketa dela eta, ekainaren 1ean egindako kontratua beste 12 egunez luzatzea, hau da, irailaren 12ra arte.

2.- M.Z.B. kontratatzea irailaren 1etik 30era arte J.D.L.T. txofer-zamaketariaren ordezkapena egiteko, oporratik. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

3.- M.A.E. kontratatzea irailaren 2an M.S. Garbiguneko zaintzailearen ordezkapena egiteko, eta irailaren 5etik 10era J.L.M., oporratik. Lanpostu hauei dagokien ordainsaria emango zaio.

4.- J.D.L.T.N. kontratatzea irailaren 3an Arrasateko ibilbide komertziala egiteko, txofer-zamaketari bezala. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

5.- A.A.G. kontratatzea irailaren 3an Arrasateko ibilbide komertziala egiteko, zamaketari bezala. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

**16/86.-** 16/25 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HOGEITA BEDERATZI MILA EHUN ETA HOGEITA BOST EURO ETA HIRUROGEITA HEMERETZI ZENTIMO (29.125,69 €).

**16/87.-** 16/26 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BOSTEHUN ETA BERROGEITA HIRU MILA EHUN ETA HOGEI EURO ETA LAUROGEITA LAU ZENTIMO (543.120,84 €).

**16/88.-** 16/27 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HOGEITA SEI MILA BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA BEDERATZI EURO ETA LAUROGEITA HAMABI ZENTIMO (26.569,92 €).

**16/89.-** 16/28 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BEDERATZI MILA BERREHUN ETA HOGEITA HAMAHIRU EURO ETA BI ZENTIMO (9.233,02 €).

**16/90.-** 16/29 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira EHUN ETA BERROGEITA HAMAIA MILA BOSTEHUN ETA HOGEITA HAMABOST EURO ETA HIRUROGEITA ZAZPI ZENTIMO (151.535,67 €).

**16/91.-** 1.- M.E.C. kontratatzea irailaren 5etik 23ra arte, egunean 2 ordu t'erdiz, D.G. ordezkapena egiteko, errehabilitazioa dela eta. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

2.- J.D.L.T.N. kontratatzea txofer-zamaketari bezala, ondorengo lanak egiteko:

- Irailaren 8an: errefusa jasotzeko zerbitzu berezia.
- Irailaren 10ean eta 17an: Arrasateko ibilbide komertziala egiteko.



- Irailaren 14an, 3 orduz, I.L. ordezkapena egiteko.
- Irailaren 19an: M.Z. ordezkapena egiteko.

Txofer-zamaketari lanpostuari dagokion ordainsaria emango zaio.

3.- J.R.A. kontratatzea zamaketari bezala, ondorengo lanak egiteko:

- Irailaren 8an: errefusa jasotzeko zerbitzu berezia.
- Irailaren 10ean eta 17an: Arrasateko ibilbide komertziala egiteko.
- Irailaren 19an eta 20an: Balerion arropa edukiontzien sarraillak aldatzeko.

4.- M.P.E. eta I. G. Z. kontratatzea irailaren 19tik 23ra Aretxabaletan herritarrei edukiontzietako txartel banaketa egiteko. 18,20 €/orduako ordainduko zaie, pagak eta porrak barne.

5.- J.O.G. kontratatzea irailaren 19tik 23ra arte, J.E. txoferraren ordezkapena egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

**16/92.-** 1.- J.R.A. kontratatzea irailaren 21etik aurrera J.C.O. zamaketariaren ordezkapena egiteko, gaixotasunagatik. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

2.- J.M.K. kontratatzea irailaren 21ean M.Z. txofer-zamaketariaren ordezkapena egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

3.- M.A.E. kontratatzea irailaren 23tik 26ra J.L.M. Garbiguneko zaintzailearen ordezkapean egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

-----

Une honetan Maria Ubarretxena sartu da bilerara.

-----

## **6.- GALDE-ERREGUAK**

- “Epeleko zabortegian zigilatu, gela berria ireki eta garbigunea egiteko proiektuko” lanen kontratua dela eta, CONSTRUCCIONES MURIAS, S.A.U. enpresak obran jarritako material geosintetikoaren kalitate-galeraren kuantifikazioa onartuz Mankomunitateko Gobernu Juntak hartutako erabakiaren aurka jarritako ondorengo administrazioarekiko auzi-errekurtsoari buruzko Administrazioarekiko Auzien Donostiako 1. Epaitegiaren epaiaren berri eman du idazkariak. Errekurtsoa bere osotasunean ezetsi da, kontratistari kostak ordaintzearen zigorra ezarriz.
- Oinarrizko Lanbide Heziketa programari laguntzeko proposamen bat aurkeztu da.
- Kilometroak 2016; Mankomunitateak Kilometroak 2016ko antolatzaileekin sinatu duen agiriaren berri eman da.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 14:30etan, bukatutzat eman da bilkura.